

bolunta |

boluntariotza eta elkarteentzako agentzia
agencia para el voluntariado y las asociaciones



boluntario izatea da...



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



bbk

© bolunta | boluntariotza eta elkarreentzako agentzia

Edizioa

bolunta

Diseinua

Suspergintza Elkartea

Itzulpena

Artez

Imprimaketa

Berekintza

Lege gordailua:

aurkezpena

Boluntarioen organizazioek gorakada handia bizi dute azken urteetan. Herritarrek osatutako taldeok gizartean dauden beharrian askori erantzuten diete, gero eta hobeto antolatuta daude, eta haziz doaz. Horrela, apustu libre, desinteresatu eta solidarioan oinarritutako mugimendu zabala artikulatzen dute.

Erakunde guztiok gizartearen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute. Bereizten dituen proposamen irekiak izatea da, euren helburu eta proposamenetan interesa duen edozein pertsona hartzeko prest baitaude. Elkarrean

inguruko mugimendua parte hartzeko eremua da, taldean lan egitekoa, etengabe ikasi eta gizarte eraldatzekoa.

Esku artean duzun gidaren asmoa boluntariora garatzen laguntzea baino ez da. Horretarako, mugimendu horren gaineko alderik garrantzitsuenei buruz beharrezkoa den informazioa eskainiko da, eta konpromisoz, entusiasmoz eta lanez beteta dagoen abentura kolektibo horretan parte hartzeko gonbita egingo zaizu.



aurkibidea

aurkezpena	3
boluntario izatea nor izan daiteke boluntario zer da lan boluntarioa boluntario izateko betekizunak ekintza boluntarioaren funtzioak	6
boluntariotzaren garrantzia lan boluntarioaren arrazoiak beharrezko eragozpenak	10
boluntariotzatik hirugarren sektorerara boluntariotza hirugarren sektorea boluntariotza sostengatzen duten balioak	16
zelan parte hartu lehenengo pausoak jardun-eremuen sailkapena boluntarioaren eskubide eta betebeharrak	21
bolunta zer da bolunta helburuak eta zerbitzuak non dago	27
bibliografia	30

boluntario

Nor izan daiteke boluntario

Boluntarioa da, libreki, **bere denbora**, bere jakituria, bere esperientzia... **eskaintzen** dituen pertsona, lan solidarioa doan egiteko. Bere helburua **gizartea eraldatzea** da, konbentzitura baitago bere lana mundu hobea sortzeko lagungarria dela.

Edozein pertsona izan daiteke boluntarioa.

Denok daukagu zer eskaini, gure ahalmenen, gure motibazioen eta gure egoera pertsonalaren arabera. Beti aurkituko dugu gure lekua.

Baina "zer" egin garrantzitsua bada ere, "zelan" egin ere hori bezain garrantzitsua da. Horrela, boluntarioa **libreki** konprometitzen da **gizartearen intereserako** diren ekintzak modu **desinteresatuan** egitera, eta horretarako **antolamendupeko** lanetan hartuko du parte. Beste pertsona batzuen eskura jartzen da bere **ekimen propioz**.

izatea

Zer da lan boluntarioa

Lana da, beraz, dedikazioa eta esfortzua eskatzen du. **Aukera pertsonal** boluntario eta librea da, baina erakunde batekin **konpromiso egonkorra** izan behar da gure parte-hartzea kanalizatzeko. Boluntarioak **doan** hartuko du parte, eta beti ere beste pertsona batzuen eta gizarte osoaren alde.

Boluntario izateko betekizunak

Parte hartu nahi izatea. Denbora apur bat izatea. Prest egotea konpartitzeko, trebatzeko, besteekin eta besteentzat lan egiteko. Eta hartzen den konpromisoari egonkortasuna ematea ere funtsezkoa da.

Pertsona batek arrazoi asko izan ditzake boluntario bezala lan egiteko. Motibazio politiko edo erlijiosoekin hasi, eta gure inguruneko arazo zehatzak konpontzeko borrokaraino; ahaztu gabe esperientzia berrien

edo bere denbora betetzeko ezberdina den zerbaiten bila dabilena.

Dena den, hasierako arrazoi horiek baino garrantzitsuagoa da **pertsonak solidaritate eta doakotasun jarrera errealetarako bilakaera izatea**, eta horiek izatea lan boluntarioan izango duen jarraitasuna definituko dutenak.

Parte hartzeko dugun grina geldiarazten duten **beldurrak** ere hor daude: gure esfortzuak ezertarako balio ez duela pentsatzea, politikoen opilari su emateko bakarrik balio duela; lanpostuak kentzen ditugula; "ez dut horretarako adinik, zaharregia edo gazteegia naiz eta", "ez dut esperientziarik boluntariotzan", "ez dakit balioko dudan", "ez dut zer eskaini" erantzutea. Ulertzeko moduko beldurrak dira, baina normalean, funtsik gabeak.

Eta norberari boluntario izan daitekeela erakusteko modurik onena **proba egitea** da. Denbora apur bat eta motibazio txiki bat

baduzu, **ausartu beharra dago**; zure ahalei ondoen egokitzen zaion erakundea aurkitzea besterik ez duzu, hain zuzen ere, zu gustuen zauden organizazioa eta parte hartzeko aukera ematen dizuna.

Organizazioek, euren ezaugarri eta beharrizanen arabera, interesa duen edozein pertsonari laguntzeko modua eskaintzen dion **aukera zabala dute**. Gaur egun dagoen erakunde, elkarte eta GKEn aniztasunak, zalantzarik gabe, leku egokia aurkitzea ahalbidetuko dizu.

Azken finean, ez du adinak edo prestakuntza akademikoak ardura, ezta aurreko esperientziak ere, garrantzitsua dena **parte hartzeko nahia** eta gure denbora, ahalmen eta ilusioaren parte bat beste pertsonen eta gizartearen zerbitzura jartzeko prest egotea da.

Ekintza boluntarioaren funtzioak

- | Herritarrei arazo eta bidegabekeriaren gaineko informazio ematea, horri buruz sentsibilizatzea eta mobilizatzea.
- | Hurreko jarrerarekin eta estrategia malguekin bakarrik konpon daitezkeen problematiketan esku hartzea.
- | Deskubritutako beharrezanetan jardutea; botere publikoen eta merkatuaren ekintzaren gabeziak edo mugak azalaraztea.
- | Gizartearen garapenerako beharrezkoak diren ekimenak eta aurrerabideak sortzea.
- | Talde txiki eta gutxietsien bozeramaile izatea.
- | Neurri politiko eta sozialen kontrolerako neurri izatea, eta neurriok definitu eta ebaluatzen laguntzea.
- | Ekonomi sistemak sortutako desberdintasunak konpentsatzea.

- | Beti aritzea interes orokorren eta gizartearen ongiaren alde, eta lehentasuna ematea pertsonen sustapenari eta giza eskubideen defentsari.

Hori guztiori, eta beste gauza asko gehiago, zure hurreko etorkizunean egon daitezke **boluntario bihurtzea** erabakiz gero.

Pena merezi du eta erabakitzen duena, eskaintzen duena beti zara zeu. **Zeure esku dago.**



boluntariotza ren

Lan boluntarioaren arrazoiak

Boluntariotza **pertsonaren garapenerako faktore** garrantzitsua da, baina, beste ezer baino gehiago, **gizartearen garapenerako funtsezko motorea** da. Batetik, herritarrek parte hartzea egiten du posible. Eta bestetik, gizartearen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du, gizartean desabantaila-egoeran dauden pertsona eta taldeen interesak defendatzen ditu, gizartean dauden beharrian zehatzak konpontzen laguntzen du, eta, ausardia eta originaltasunarekin, komunitatearen bizitza

hobetzeko proposamen berri eta alternatiboak sortzen ditu.

Boluntarioen organizazioek funtsezko **gizarte-helburuak lortzeko** egiten dute lan: ingurumena defendatzea; baztertuta dauden pertsona eta taldeak gizarteratzea; garatzeko bidean dauden herrialdeei lankidetzak eskaintzea; giza eskubideak defendatzea; kultura, kirola, hezkuntza eta abar sustatzea.

Gainera, boluntariotza behar-beharrezkoa da, **une bakoitzean** dauden **beharrianetatik**

garrantzia

abiatzen delako, arazoetan modu **zuzenean** eragiten duelako eta irtenbideen bilaketan **aitzindari** lana egiten duelako.



Oraindik ere arrazoi gehiago behar dira? Uste al duzu baietz? Hona hemen beste sorta bat, bada.

- | Lan boluntarioaren bidez parte hartzea herritar guztiok daukagun eskubidea da.
- | Boluntariotzak historian zehar herrien garapenean lagundu du, gizarte-ehuna sortu

eta ideia eta mugimendu aldatzaileei estalpea eman baitie.

- | Boluntariotzak gure bizitzan, gure auzoan, gure hiri edo gure herrian dugun protagonismoa eta kontrola berreskuratzen laguntzen digu. Ekintza boluntarioak demokrazia sakontzen du, erabakitzen duena gutxiengoa izatea saihesten duelako, gure ahotsa entzunarazten duelako, parte hartzea lau urtetik lau urtera botoa ematea baino zer edo zer gehiago izatea posible egiten duelako.

- | Boluntariotzak, besteekin solidarioak izan eta doan aritzeagatik, beste ikuspegi eta balio bat ematen dio bizitzari.
- | Boluntariotzak sustatzen dituen balioak - justizia, solidaritatea, errespetua, norberaren burua ematea, erantzunkidetasuna, doakotasuna, lankidetzak...- guztiz funtsezkoak gizartearen ongirako.
- | Boluntarioen organizazioak hiritartasunerako eskolak dira, etengabe ikasteko, taldean lan egiteko eta garapen pertsonalerako aukera.
- | Boluntariotza guztiontzako ongia da eta bertan denontzako lekua dago. Konpromisoaren eta askatasunaren aldeko apustua da.



Beharrezko eragozpenak

Askotan boluntariotzak **kritikak** jasotzen ditu lanpostuak kentzen dituela, beharrianei administrazioak egin behar diela aurre esaten delako, kontzientzia arintzeko balio duela baina benetan ez duela ezer konpontzen, doakotasuna zalantzan dagoela parte hartzearen truke ikasteko kredituak bezalako onurak lortzen direlako... Horietako zerbait gertatzen denean boluntariotzak, jakina, daukan zentzu osoa galtzen du.

Boluntariotzaren justifikazioa ez dago gizarteko baldintzak gero eta eskasagoak izatean, eta ez da guztion ongiaren kontura garatu behar. Boluntariotza ez da onargarria herri-erakundeak ordezkatu nahi baditu, oinarrizko solidaritate moduak desagerrarazten baditu —adibidez, familia, lagunak edo auzoen arteko harremanak—, edo enplegua desagerraraziz hazten bada.

Lehenengo eta behin, erakundeak ordezkatu nahi izatea baino, boluntariotzak **euren**

betebeharrak betetzeko exijitu behar die erakundeoi. Edozein kasutan ere, gizarte-erakundeek herri-botereen jarduera **osatuko** dute, euren lana malguagoa eta efikazagoa izan daitekeen arloetan.

Bigarren, boluntariotza **solidaritateerako eta gizartearen errealitatearekin harremana izateko moduetako bat baino ez da.** Bere helburua ez da beste erreferentzia-esparru pertsonal edo kolektiboekin (afektiboak, lanekoak edo aisiakoak) lehiatzea edo horiei lekua kentzea, aldiz, gure ardura solidarioak zabaltzeko beste aukera bat ematea da.

Hirugarren eta azken, **boluntario batek ez du profesional baten lana hartu behar.** Ikuspuntu praktikotik begiratuta, ez bere trebakuntza, ez bere dedikazioa, ez bere konpromisoa ez dira egokiak. Ikuspuntu etikotik, berriz, boluntariotzak lana izateko eskubidearen kontra egiten badu, gizarteari eta bere izaerari egindako iruzur bilakatzen da, bere identitatearen oinarria gizartearen konkista eta eskubideak sendotzea baita.

Boluntarioak eta profesionalak eskutik joan behar dira osagarriak izan daitezkeen zereginetan. Eta profesionalizazioak hartu ez dituen eremuetan, berriz, boluntariotzak betiko lana beteko du, hots, **aitzindari izatea**: beharrianak detektatuko ditu, beharrezkoa bada horiek estali eta horientzako konpromiso publikoa, profesionalen ekintza eta bitarteko eta baliabideak esleitzea aldarrikatuko ditu.



boluntariotzatik

Boluntariotza

Boluntariotza **antolatutako solidaritatearen adierazpena** da, komunitatearen arazoak konpontzeko bertan esku hartzea. Ekintza boluntarioak herritarrek komunitatearen garapenean duten **inplikazio eta konpromisoa** adierazten du; herritarrek **gizartearen aurrerapenean** hartzen duten ekimenaren manifestazio kualifikatua da. Boluntariotza **parte hartzeko eta errealitatea eraldatzeko eskubidea** erabiltzeko tresna da.

Hirugarren Sektorea

Gizartearen errealitatearen ikuspegi tradizionalak sektore bi ezarri ditu herritarrek bere beharrian indibidual eta kolektiboentzako erantzuna aurkitzeko.

Lehenengoa **Sektore Publikoa** da, ordezkari-sistematik eratorritako erakundeek kudeatutako eremua da (udalak, aldundiak, estatu eta autonomia erkidegoen gobernuak, Europar Batasuna, etab.), eta gure

hirugarren sektorea

Bigarrena **Sektore Pribatua** da, ekimen partikularraren eta norbanakoen baliabideen menpekoa. Gure ekonomi sistemako gizartean horrek duen isla zenbait espazio pribatuak izatea da, eta ekonomian, berriz, merkatu askea izatea.

Baina banaketa hori ez da nahikoa norbanakoei gizartearen ingurunearekin duten inplikazioa definitzeko. Banaketa horrek akats susmagarri bat egiten du, hain zuzen ere, ahaztea esparru biokin batera, pertsonen, **harreman paraleloen sarea** eratu dutela,

intentsitate-maila ezberdinekin, antolamendu-maila ezberdinekin eta mota guztietako jarrera ideologikoekin.

Sare horren bidez, irtenbideak bilatu zaizkie administrazioek eta merkatuak estaltzen ez dituzten gizartearen eskakizunei, eta errealitatea ulertu eta kudeatzeko proposamen alternatiboak aurkeztu dira, eta, askotan, ezarritako ordena zalantzan jarri da. Irabazi asmorik ez duten erakundeetaz ari gara: elkarteak, plataformak, koordinakundeak, GKEak edo fundazioak. Erakunde horiek

guztiek solidaritatea eta erantzun soziopolitikoak antolatzeaz aparte, gero eta ekonomi pisu handiagoa dute, gainera. Fenomeno horrek ezin zuen ahaztuta jarraitu eta hori dela eta izen bat bilatu zaio: **Hirugarren Sektorea**.

Espazio horretatik abiatzen da boluntariotza beharriaz aurre egiteko. Horretarako, gurasoen elkarteak, ikasleen elkarteak, aisialdiko elkarteak, hegoaldeko herrialdeekin lankidetzarako organizazioak, aldarrikapen ekologistetarako organizazioak, organizazio feministak, organizazio antimilitaristak, kaltetutakoen taldeak, hirugarren adineko taldeak, elkar laguntzarako taldeak... eratzen dira.

Espazio horretan betetzen du boluntariotzak aldarrikatze eta politika soziala eta ekonomi sistema kritikatzeko funtzioa. Boluntariotza zaintzan dago komunitateen erabateko garapena eta justizia soziala eragozten duen edozer salatzeke.

Boluntariotza sostengatzen duten balioak

Lau dira lan boluntarioaren mamia osatzen duten funtsezko balioak: solidaritatea, parte-hartzea, organizazioa eta doakotasuna. Ikus ditzagun, banan-banan.

| Solidaritatea

Lehenengo baldintza da. Inguruan dugun errealitatearekiko, arazoekiko, justizia gabetasunarekiko sentikorrak izatea da, eta gugandik irten eta besteen alde jarduteko gai izatea. Gure bizitzako arlo guztietan praktikan jar dezakegun balioa da, eta eguneko edozein mementotan. Pertsona solidarioa izatea jarrera pertsonala da, bizitzeko estiloa da. Estilo horren ezaugarriak dira: beste pertsonak errespetatzea, entzutea, ulertzea, jarrera bat hartzea eta laguntzea.

| Parte-hartzea

Gure gizartean parte hartzeko eremu asko dago: familia eta lagun artea, lana, gure botoa, gure kontsumoa, gure zergak, gure aisialdia... Eta parte hartzen dugun bakoitzean



biharamuna baldintzatzen ari gara, gizarte-mota baten ala bestearen aldeko apustua egiten dugu. Boluntariotza parte hartzeko kualitatiboki ezberdina den aukera da, konpromisoa dakarrelako eta gizartea eraldatzeko eta hobetzeko xede argia duelako. Herritar guztiok gure gizartearen bizitzan parte hartzeko eskubidea dugu, bai gizarteaz gozatzeko, bai erabakiak hartzeko, baita gizarteak dituen arazoentzako irtenbideak bilatu eta martxan jartzeko ere.

I Organizazioa

Boluntariotza eta organizazioa banatu ezin daitezkeen kontzeptuak dira. Beharrezkoak diren lanak eta dedikazioak talde-lana behar dute. Efikazia bermatzen duen bakarra organizazio baten barruan lan egitea da, gizartean dugun posizioa sendotzen duelako, eta kontrastatzeko, ekintzei jarraitasuna ematekoa eta zereginak konpartitzeko aukera ematen duelako. Gainera, indibidualismoaren aurrean, komunitarioa denaren aldeko apustua egitea da, hazteko eta denon artean guztiona den gizartea eraldatzeko.

I Doakotasuna

Doakotasuna ekintza boluntarioaren oinarria da. Boluntarioak, definizioz, printzipioz, ez dira interesen arabera jarduten. Boluntarioek ez dute eurentzako irabazi ekonomiko edo materialik bilatzen, aldiz, gizartearen onura lortzeko lagundu nahi dute, denon ongian zentratutako xede eta helburuak lortzeko.



zelan parte hartu

Lehenengo pausoak

Jarraitzen diren lerroetan, boluntario moduan parte hartzeko pauso batzuk proposatuko dizkizugu.

- | Mugiarazten dizuten **motibazio** eta kezkei buruzko hausnarketa egin.
- | Eskaini dezakezun **dedikazioa** ezarri: zenbat ordu erabil ditzakezun, zenbat egun eta zenbateko maiztasunarekin. Batzuetan, egoera pertsonalak, lanekoak edo familiarrak

lan boluntarioa modu egokian egitea galaraz dezakete.

- | Erakundeek euren konpromisoan gutxieneko **egonkortasuna** eskaintzen dieten pertsonak behar dituzte. Hasieratik argi utzi beharko duzu aldi baterako lankidetza bada, edo puntuala, eta zein faktorek baldintzatu dezaketen zure lankidetza.
- | **Gehien erakartzen zaituen, gehien interesatzen zaizun lan-arloa** bilatu eta aukeratu, eta arlo horretako zeregin eta

beharrizanei buruzko informazioa lortu erabaki zuzena hartzeko.

- | Parte hartu nahi duzun arloan dauden erakundeei buruzko **informazioa lortu**, eta zure interesei eta dedikaziorako dituzun aukerei ondoen egokitzen zaiena aukeratu.
- | Behin organizazioarekin harremana duzula, egingo dituzun **zereginak** definitu organizazioarekin batera. Zereginak definitzerakoan, zure gaitasunei gehien egokitzen zaizkienak izango dira kontuan.



Zalantzak izanez gero, zelan jardun argi ez baduzu, informazioa eskatu **bolunta**n, hurrengo kapituluan aurkeztuko dizugun lan boluntarioa eta gizarte-mugimendua garatzeko Bizkaiko agentzian.

Jardun-eremuen sailkapena

1 Aisia eta astialdia

Kultura
Kirol jarduerak
Hezkuntza
Astialdia orokorrean

2 Ingurumena

Ekologismoa
Kontzertbazionismoa
Animalia eta landaren defentsa
Produktio ekologikoa
Ingurumen-hezkuntza

3 Babes zibila

Babes zibila
Istripu eta larrialdiak
Laguntza errepidean
Basoetako suteak
Hondamendi naturalak

4 Garapenerako lankidetzak

Lankidetzak programak
Sentsibilizazio kanpainak

Merkataritza bidezko eta solidarioa
Lankidetzaren teknika

5 Gizarte-marjinazio eta bazterkeria

Hirugarren adina
Umeak
Gazteak
Pobrezia
Kartzela
Emakumea
Gizartean eta lanean integratzea
Gutxiengo etnikoak
Etorkinak
Errefuxiatuak

6 Atxikimendu eta mendekotasunak

Drogamenpekotasunak
Alkoholismoa
Ludopatiak
Bestelako mendekotasunak

7 Minusbalotasunak

Minusbalotasun fisikoak
Minusbalotasun psikikoak
Minusbalotasun sentsorialak

8 Gaixotasunak eta osasun zerbitzuak

Kaltetutakoen elkarteak
Elkar laguntzarako taldeak
Etxez etxeko laguntza
Laguntza ospitaletan
Odol eta organoak ematea
Osasunaren sustapena

9 Giza eskubideak

Nazioarteko salaketa
Sensibilizazio-kanpainak
Bakezaletasuna
Heriotz-zigorren kontrako kanpainak
Emakumeen eta umeen aurkako tratu txarrak

10 Kontsumoa

Kontsumitzaileen eskubideak
Kontsumerismoa

11 Haezkuntza eta kultura

Gurasoen elkarteak
Ikasleen elkarteak
Irakasleen elkarteak
Kulturaren sustapena

Boluntariotzak **pertsonaren eta lan egiten duen organizazioaren arteko harremana** sortzen du. Harreman horrek **eskubide** eta **betebeharrak** sortzen ditu.

Boluntarioaren eskubideak



- 1 Organizazioan **modu aktibo eta askean parte hartzea**, organizazio horri buruz beharrezkoa den informazioa jasotzea, eta batez ere organizazioaren helburu, organizazio-egitura eta funtzionamenduari buruzkoa, eta organizazioaren barruan eratzen diren parte hartzeko organoen parte izatea ere bai.
- 2 Esku hartzen duen **programa eta proiektuen diseinu, elaborazio, betearazpen eta jarraipenean laguntzea**. Boluntarioa den neurrian eragiten dioten organizazioaren alderdiei buruzko iritzia emateko aukera izatea.
- 3 Boluntario moduan betetzen duen lanerako **beharrezkoa den laguntza teknikoa,**

giza laguntza eta prestakuntza jasotzea, eta bere baldintzei ondoen egokitzen zaizkien ekintzei buruzko aholkua jasotzea.



- 4 Boluntario moduan betetzen duen lanak beste pertsona batzuei sor diezaiekeen kaltegalerei aurre egiteko **aseguruaren estaldura izatea**, arauz ezartzen diren ezaugarri eta kapitalekin.
- 5 **Bidezko tratua eta diskriminaziorik gabea jasotzea**, eta bere askatasuna, duintasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuak izatea.
- 6 Bere lana **segurtasun eta higienebaldintza egokietan** betetzea, bere lanaren izaera eta ezaugarrien arabera.
- 7 Bere lanak dohain egiteagatik eta gizarteari egiten dion ekarpenagatik **merezi duen errespetua eta aintzatespena izatea**.
- 8 Boluntario izateari **libreki uztea**, aurretik abisatuta.

Boluntarioaren betebeharrak

- 1 Boluntarioak **laguntza aktiboa** ematea sartu den organizazioari, eta bere ahalmenen arabera organizazioan parte hartzea eta laguntzea.
- 2 Organizazioarekin hartu dituen **konpromisoak betetzea**, eta, aldi berean, organizazioa arautzen duten xedeak eta araudia betetzea.
- 3 Bere gain hartzen dituen eta esleitzen dizkioten zereginak egiterakoan **arduraz aritzea**, eta organizazioko arduradunek ematen dizkioten jarraibideak jarraitzea.
- 4 **Organizazioak aurreikusitako prestakuntza-jarduketetan parte hartzea**, baita ematen diren zerbitzuen kalitatea mantentzeko beharrezkoak direnetan ere.
- 5 Jardun boluntarioan zehar jaso eta ezagututako informazioaren **konfidentziasuna gordetzea**.
- 6 Bere lanaren xedea diren pertsona edo pertsona-taldeen **eskubideak errespetatzea**.



×



bolunta

zer da **bolunta**

bolunta boluntarioentzako eta elkarteentzako Bizkaiko agentzia da. Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK-k eta EDE Fundazioak babestuta, bere funtzioa pertsonen eta horien organizazioen ekintza solidarioa bultzatzea da.

boluntak pertsonekin batera eta pertsonentzat egiten du lan. Bizkaitarrek solidaritaterako eta elkartzeko dituzten kezkei erantzuteko **informazioa eta aholkua** bilatzeko **zentroa** eskaintzen die. Zalantzaren bat badauzazu,

gehiago ezagutu nahi baduzu, urbidu zaitez. **bolunta**k taldeekin eta taldeentzat ere egiten du lan. **Bizkaian dauden boluntarioen elkarte eta organizazioei laguntza integrala** ematen die, eta horretarako, euren gizartelana erraztuko duten zerbitzuak ematen dizkiete.

Helburuak

- | Boluntariotzari buruzko informazioa ematea pertsona eta erakundeei.
- | Irabazi asmorik ez duten gizarte-ekimen berrien sorrera sustatzea.
- | Pertsonak boluntarioen organizazioetan sartzea erraztea.
- | Hausnarketarako eta prestakuntzarako espazioak eskaintzea boluntarioei eta organizazioetako arduradunei.
- | Boluntarioen organizazioen arteko harremana sustatzea, baita horien eta beste gizarte-agenteen artekoa ere.
- | Boluntariotzan eta asoziazionismoan sortuko diren beharrian berriak aurreikusi eta horiei erantzutea.


Serbitzuak

- | **Informazioa/** Informazio orokorra eta berezitua erakunde eta norbanakoentzat. Arreta pertsonalizatua eta informazio-euskarri eta datu-base mota guztiak.
- | **Erakunde eta norbanakoentzako aholkularitza/** Irabazi asmorik ez duten erakundeen garapenerako eta gizarte-ekimen berriak sortzeko laguntza.
- | **Sustapena/** Informazio, sentsibilizazio eta zabalkunderako kanpainak. Ikerketa eta argitalpenak. Boluntariotza sustatzeko programak.
- | **Dokumentazioa/** Dokumentu-funts espezializatua. Bibliografiaren inguruko orientazioa, materialaren kontsulta eta mailegua eta beste zerbitzu batzuk.
- | **Bitartekaritza/** Parte hartu nahi duten pertsonen eta boluntarioen organizazioen arteko zubia.

I Gertu aldizkaria/ Bihilabetekaria, agentziaren eta bere erabiltzaileen arteko lotura. Boluntario eta erakundeentzat interesgarriak diren edukiak.

I Prestakuntza/ Norbanakoentzako eta erakundeen arduradunentzako ikastaroak, informaziorako topaketak, mintegiak, hitzaldiak eta tailerrak.

Aipatutakoez gain, **bolunta**k beste zenbait baliabide ere eskainiko ditu, esaterako, batzarretarako eta beste ekintza batzuetarako gelak eta komunikazio eta informatikako zerbitzu espezializatuak.



Non dago **bolunta**

Erronda, z/g (5.aren aurrean)
48005 Bilbo

Tfnoa. 944 161 511

Faxa 944 168 864

bolunta@bolunta.org

www.bolunta.org

Ordutegia:
astelehenetik ostiralera
10.00etatik 13.30etara
eta 16.30etatik 20.00etara

bibliografía

García Roca, Joaquín
Solidaridad y Voluntariado
Ed. Sal Terrae, Santander, 1994

Plataforma para la promoción del voluntariado en España.
Tu puedes ser voluntario/a

Consejo de la Juventud de España
Cultura participativa y Asociacionismo Juvenil
Ed. CJE, Madril, 2000

AAV
Las Entidades Voluntarias en España
Ministerio de Asuntos Sociales, Madril, 1996

Consejo de la Juventud de España
Guía didáctica de educación para la participación
CJE, Madril, 2001

Gómez Gómez, Amalia
El voluntariado como expresión solidaria en el siglo XXI
Revista Documentación Social, 14 zk.

González Galey, Guadalupe y Arias Rodríguez, Charo
Voluntariado, una apuesta por el cambio

Zubero Beaskoetxea, Imanol
Situación actual y retos de futuro para el voluntariado
Monitor Educador aldizkaria, 82 zk.

García Fajardo, José Carlos
Manual del voluntario
Ed. Solidarios para el Desarrollo, Madril, 2001

Fundación EDE y Campus Kultur Elkartea
Borondatzeko lanerako gida
Alde Voluntariado, Bilbo, 1995

WAA
Organizar entidades de iniciativa social.
Ideas para emprendedores
Ed. A.M.B. Associació, Bartzelona

Puig, Toni
Civismo, el producto
de las asociaciones de voluntariado
Utils pràtics: Barcelona Associacions nº 8,
Bartzelona, 1998